

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI
333 - 2025eko MARTXOA

AZTARNA BATEN IRAGANA,
ORAINA ETA GEROA

Balio natural handiko sega-belardientzako dirulaguntza

2024eko Nekazal Politika Bateratuaren (NPB- gaztelaraz PAC) kanpainan, dirulaguntza berri bat jarri zen martxan: BALIO NATURAL HANDIKO SEGA-BELARDIAK. Iazko arrakasta ikusita, aurten 2025ean beste deialdi bat ireki egin da segabelardi eta abeltzain berriak erakartzeko. Dirulaguntza hau berezia eta berritzailea da, bai Nafarroan bai estatu osoan, horregatik informazio kanpaina egiten ari da, herrietara hurbilduz, eskatu dezaket

abeltzaneei nondik datorren eta zertan datza kontatzeko. Laguntza hau berezia dela diogu, bi kontzeptu berritzaile biltzen dituelako: Balio Natural Handia eta emaitzetan oinarritutako ordainketak. Balio Natural Handia kontzeptua joan den mendearen amaieran sortu zen, eta nekazaritza- edo abeltzaintza-erabilerako lurrei dagokie, baldin eta nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera estentsibo horiei

lotutako biodibertsitate handia hartzen badute. Beraz Balio Natural Handiko sega-belardiak abeltzaintza estentsiboko kudeaketei lotutako belardi erdinaturalak dira, flora aniztasuna handia dute eta kontserbazio balore handikoak dira. Eskasak dira Nafarroan eta sega-belardi horiek babesteko beharretik sortu da dirulaguntza hau.

Emaitzetan oinarritutako ordainketak dirulaguntzen filosofia berri bat dira, eta bertan ezartzen dena ez da erabilera- edo kudeaketa-eskakizun bat, ohiko NPB-eko laguntzetan bezala, baizik eta bete beharreko helburu bat edo lortu beharreko emaitza bat ezartzen da, eta laguntza eskatzen duenak ordainketa bat jasotzen du emaitza horren lorpen-mailaren arabera. Balio Natural Handiko Sega-belardientzako dirulaguntza jasotzeko, abeltzainak bere belardiak ebaluatu behar ditu 0tik 100era bitarteko puntuazioa lortzeko. Belardi horrek biodibertsitatea hartzeko duen gaitasuna ezagutzea da helburua, eta, puntuazio horren arabera, diru gehiago edo gutxiago jasotzen du. Ebaluazioa egiteko aholkularitza eta formazioa jaso behar da eta GAN-NIK enpresa publikoak ematen du zerbitzu hori. Hona hemen dirulaguntzaren ordainketak:

70-85 puntu: 334,8 €/ha
 >=85 puntu: 372 €/ha

Informazio gehiago: Silvia Zabalza (Nekazal Dibertsitate eta LGP Arloa - GAN-NIK) 680133421 / 848420715 / 848420700 szabalza@gan-nik.es



MAILLOPE

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU: Maillope Kultur Elkarteak. L.G.: NA 719/93 Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA: Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK: Aimar Azpiroz, Ainhoa Beraza, Aitor Perez, Ander Elizalde, Araxes Ikas Komunitatea, Bingen Beguiristain, Irati Garziarena, Kirolmank, Mikel Barberia, Nerea Labayen, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Teresa Mariñelarena.

· PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA: Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT MULTIMEDIA

AURKIBIDEA

02 CEDERNA-GARALUR

04 KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 MAITE DITUT MAITE Elosta

8 ELKARRIZKETA "Matematiken formulak buruz ikasteaz gain, ulertzea ezinbestekoa da". Saioa Ganuza García de Albeniz (Lekunberri)




12 BATZARRE

14 ERREPORTAJEA "Araxes eskolak 50 urte betetzen ditu". Jon Altuna eta Lurdes Muinoa




18 KULTURA

22 KIROLA "Entrenamenduak oso garrantzitsuak dira, baina atsedena ezinbestekoa da errendimendua hobetzeko". Aimar Azpiroz (Arruitz)




28 PLAZATIK PLAZARA "Postaria izateaz gain, pilotan aritu nintzen profesional mailan" Mikel Soroa Onsalo (Lekunberri)



31 AGENDA

Kepa Pérez de Rozas Cuesta
Martxoaren 8an 3 urte. Zorionak, Kepa. *Moltes felicitats petit!* Segi horren bixi eta alai. *Un petó gegant, etxekoan partez. Testimem*



Xua Urkola Estanga
Zorionak, Xua! Martxoan 3an 2 urte. Ametsek, amak, aitak, izeba Anek, osaba Oskarrek eta aiton-amonak asko matte zattugu. Musu handi asko zutatz!

Manu Mindegia Urrestarazu
Martxoaren 5ean 2 urte Zorionak! Musu handi bat familia guztiaren partez!




Iker Iribarren Azpiroz
Martxoaren 24an 4 urte. Zorionak! Segi zure irribarrearekin gure bizitzak alaitzen.

Haitz Garmendia Aristi
Martxoaren 26an 2 urte. Zorionak, txiki! Segi beti bezain alai, denoi irribarre hori aterazten! *Asko matte zatteu!* Musu famili guztiaren partez.



Alai Michaus Landa
Martxoaren 25ean 5 urte. Zorionak, Alaitxo! Segi beti bezain alai izaten! Musu handi bat familia guztiaren partez.



Unai eta Amaia
Unaiek martxoaren 12an, 9 urte, eta Amaiak martxoaren 27an 40. Zorionak! Familian eta lagunaren artean ederki pasako duzue! Musu erraldoi bat etxeko guztiaren partez!

Mertxe eta Arturo
Mertxek martxoaren 18an 53 urte eta Arturok martxoaren 27an 7 urte. Zorionak, bikote! *Besarkada handi bat Atallutik!*



Intza Etxarri Zubeldia
Martxoaren 30ean, 6 urte. Zorionak, Intza! Ongi-ongi ospatu zure eguna! Musu handi bat!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago! Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com



ARROZTEGIKO AUZIPETUEKIN ELKARTASUNEZ

Osoko Bilkuran onartutako mozioan, Nafarroako Gobernuari UGEpa gelditze-ko nahia adierazi eta Aroztegiako proiektu espekulatzailearen aurkako borrokan parte hartu duten zazpi herritarrak absolbitzeko nahia adierazi du Larraungo Udalak. Proiektu hau Lekarozko herrian inposatu da, eta Nafarroako Gobernuak espekulazio pribatuaren alde egin du herritarren interesen kaltetan. Gainera, desobediencia ekimen baketsu baten ondorioz auzipetuak izan diren herritarrei 20 urteko kartzela-zigor eta 56.000 euroko fidantza inposatu zaie.



LARRAUN ETA LEKUNBERRIKO KULTUR SAILAK ORDUTEGI BERRIA DU

Larraun eta Lekunberriko Kultur Sailak ordutegi berria ezarri du eta aurrerantzean, astearte arratsaldean ere eskainiko da zerbitzua. Horrela, orain arte goizetan bertaratu ezin zitezkeen bizilagunek aukera izanen dute arratsalde batez hurbiltzeko, beren proposamen eta beharrak helarazteko. Era berean, kultura eta udal zerbitzuak erabiltzeko aukera gehiago izanen dituzte. Erabaki honen bidez, ahalik eta pertsona gehienengana iristea eta herritarren parte hartzea bultzatzea da helburua.



AUTOBUS ZERBITZU BERRIA MARTXAN DA

Nafarroako Gobernuak Mugikortasun Sailak autobus zerbitzu berri bat abiarazi du, egunero 13:00etan Iruñeko Bus Geltokitik abiatzen dena. Autobusak ibilbide hau egiten du: Arruitz, Bentak, Lekunberri, Azpirotz, Lezaeta, Betelu, Arribe eta Atallu. Zerbitzu berri honek, Iruñetik inguruko herrietara egunero joateko aukera eskaintzen du, eta helburua herritarrentzako irisgarritasuna hobetzea eta mugikortasuna erraztea da.

► Mikel Barberia (Gaintza)



Gipuzkoarrak jarri nauela Mailoperako idazten ahal den bezalako bertso bat zuei guztiei moldatzen.

Usoak badoaz iparralderantz aurki kukua kantatzen beraz udaberria heldu da odola zaigula pitzen.

Gure txoko eta bazter maiteak berdez zaizkigula janzten atera, sega eta eskuareta, nahiko lan belarra moztzen.

Hemengo paraje hauekin edozein baita berpizten gure Mailopeko herri hauek xarma dute erakusten.

Doinua: Salamankara. Hurrengoa: Libe Martínez De Rituerto (Arribe)

LANDA EREMURAKO ETXEBIZITZA PLANA

Otsailaren 6an, Nafarroako Parlamentuko osoko bilkuran EH Bilduk aurkeztutako mozio bat onartu zen, Nafarroako Gobernuari eskatzen ziona Landa Eremurako Etxebizitza Plan bat egin dezan. Nafarroako lurralde eta gizarte kohesioan aurrerapausoa dela uste dugu, ezinbestekoa baita lurralde osoan etxebizitzaren merkatuan esku hartzea.

Baina, zergatik da beharrezkoa etxebizitzaren merkatuan esku hartzea? Has gaitzen gezur handi bat deseraikitzen. Merkatuak bere burua bakarrik erregulatzen duela baieztatzen duen mantra neoliberal hori. Baieztapen hori gezurra da. Eta errepikatzen jarraitu arren, gezurra izaten jarraituko du.

Kontrara, Jaime Palomera Zaidel irakasleak dioen bezala, zenbait lekutan etxebizitza eskubide unibertsala erabat bermatu ez bazen ere, arazoa neurri handi batean arindu egin zen esku-hartze publikoari esker. Europako herrialde ugarietan Bigarren Mundu Gerraren amaieratik laurogeiko hamarkadara bitarteko etapan gertatu zen moduan. Erresuma Batua, Herbehereak eta Danimarka, besteak beste, saiatu ziren ongizate-estatuak eraikitzen, oinarritzko eskubideak bermatzeko, hala nola hezkuntza, osasuna, pentsioak eta etxebizitza.

Erresuma Batuak, adibidez, laurogeiko hamarkadan, etxebizitzaren %40 publikoizatealortuzuen, hamarkadetan etxebizitza politika publikoak bultzatzearen ondorioz. Etxebizitza merkatuko eremu tentsionatuen izendapenean, Nafarroako Gobernuak adierazi du "5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan erosketaren edo alokairuaren prezioari buruzko datuak ez direla adierazgarriak" eta, beraz, oraingoz, etxebizitza merkatuan esku hartzea baztertzen da automatikoki herri horietan. Hau da, Nafarroak dituen 272 udalerrietatik 251 eta biztanleen ia % 32 kanpoan uzten dituen langa ezarri da etxebizitza merkatuko eremu tentsionatuen izendapenean.

Horregatik aurkeztu dugu Landa Eremurako Etxebizitza Planaren proposamena. Planak neurri sorta zabala eta dinamikoa izan beharko du eta 5.000 biztanletik beherako udalerrientzat berariaz zuzendutakoa da. Nafarroa Garaiko herriek, despoblazio arriskuan gehienak, ezin dutelako gehiago itxaron eta ezin direlako etxebizitza politiketatik kanpo geratu.

Mikel Zabaleta Aramendia
EH Bildu Nafarroako foru parlamentaria

Hurrengoa:

Olaia Uharte Zubeldia (Baraibar)



Irati Garziarena Guridi
(Gorriti)

Zergatik aukeratu dut?

Joateko bide polita izateaz gain, oso bista ederrak dituelako: Araitz ibar osoa ikusi daiteke, baita Larraungo zerbait herri. Gainera, hauen atzean Mailoak mendilerroa dago.

maite ditut maite gure bazterrak

Elosta

Ibilbidea: joan-etorria
Distantzia: 6,3km
Desnibela: 85m
Zailtasuna: erraza



1 Lehenik eta behin, Gorriti herritik atera eta autobiarene zubi azpitik pasa behar gara ezkerreko bidea hartuz. Bertan berriro ere ezkerrean joan eta langa bat zeharkatu behar da.



2 Ondoren, legarrezko pistatik joan behar da eta aurrera jarraitua ahala, zementuzkora izatera igaroko da.



3 Behin 50 bat metroan hesia ikustean, eskuinean bi zuhaitzen tartean dagoen bidexka hartu behar da.



4 Eskuinaldean pinudia ikusiko da eta ezkerrean pagadia. Aurrera jarraitua eta eskuinaldean hesiarekin topo egin arte.



5 Bertatik, hesia eskuinean mantendu behar da gailurrera iritsi arte.



6 Gailurraren parean, Araitzekin muga egiten duen hesia dago. Hau zeharkatu eta eskuinera joatean, Elostako bista izugarrietaz gozatu dezakegu.



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA
TALLERES GOÑI
680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

“Matematiken formulak buruz ikasteaz gain, ulertzea ezinbestekoa da”

Saioa Ganuza Lekunberriko matematikari gaztea da, eta txikitatik zientzia eta zenbaki munduagandik erakarria sentitu da. Hori dela eta, datuen programazioaz gain, matematika hutsa ikasten jarraitzeko erabakia hartu du, une batez, metodologia tradizionalera itzuliz.



Saioa Ganuza García de Albeniz.

Castellon hasi zinen matematika ikasten eta orain Madrilen jarraitzen duzu...

Bai. Betidanik gustatu zait matematika ikastea. Castelloko Jaime I.a Unibertsitatean Matematika Ingeniaritza Gradua ikasi nuen, eta geroztik, aukera asko izan ditut matematika edo programazio alderdietatik jarraitzeko. Baina matematika, aljebra eta teoremak bereziki asko gustatzen zaizkit, gai horiek lantzeak erakartzen nau.

Orain, Madrilen egiten ari naizen masterrean matematika hutsa lantzen jarraituko dut, informatika alde batera utzita.

Atzerrian ere ikasten egon zinen...

Bai, Erasmus programaren barruan, Bremen, Alemaniako iparraldean denboraldi bat igaro nuen. Horrela

bertako metodologia desberdina ezagutu eta ikasturte hartako ikasgai batean, nire klase propioak diseinatu eta azaltzen ikasi nuen, izan ere, irakaslearen papera egitea formakuntzaren zati bat baitzen. Dirudienez, hango metodologia desberdina da; esaterako, gai jakin bat aztertu eta landu behar genuen, eta ondoren, irakasleak ordu bat uzten zuen bakoitzak bere azalpenak emateko.

Badago trikimailurik matematika ikasteko?

Egia esan ez dut trikimailu jakinik ezagutzen. Karrera ikasten hasi nintzenean batxilergoko deribatu eta integralak landuko genituela uste nuen, baina azkenean ikasgaiak oso desberdinak izan ziren. Ikaske-ta-prozesuan gai asko lantzen dira, eta ez du batere zerikusirik batxilergokoarekin. Gainera, ikasleen erritmoak eta beharretara egokitzeko irakaskuntza metodologia moldatu eta aldatu behar da.

Baina egia da batxilergoan, adibidez, ariketak behin eta berriro lantzea lagungarria iruditu zitzaizkidan. Ariketa mekanikoak egin eta errepikatzeak asko lagundu ninduen. Gero, jakina, pertsonaren arabera ikasteko modua asko aldatzen da, denok ez dugu modu berean ulertzen eta pentsatzen. Adibidez, nire kasuan, historia ikastea oso zaila iruditzen zait eta matematikan ordea, ariketak egitea eta logika puntu bat bilatzea erraza- goa iruditzen zait. Hala ere, praktika-




“Matematiken alderdi teorikoak ikasi eta ongi ezagutzea onuragarria da”

tzearen garrantzia azpimarratu nahi dut, eta horretaz gain, pentsatzeko forma logiko bat bilatzea ere lagungarria iruditzen zait.

Garrantzitsua da matematikako kontzeptu desberdinak erlazionatzea?

Bai. Batxilergoan, ariketa egitea da garrantzitsuena, baina unibertsitatean gauzak erlazionatu behar dira, kontzeptuak konektatu, eta logika indartu. Noski, ariketa egiten jarraitzea ere garrantzitsua da, baina teoria eta kontzeptuak ulertzea funtsezkoa da. Azkenean, dena globalki konektatzea benetan onuragarria izan daiteke.



“Unibertsitatean gauzak erlazionatu behar dira, kontzeptuak konektatu, eta logika indartu”

Ikasteko prozesuan zein da gehien errepikatzen den akatsa?

Unibertsitatean adibidez, nire akats tipikoena teoria ez ikastea izan zen. Hori ikasten ez baduzu zailagoa izan daiteke matematika ariketa bat egitea. Beraz, matematikaren alderdi

Albaitaritza
baserritarren zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Irurtzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343

IORTIA CLINICA DENTAL - HORTZ-KLINIKA

Vanessa de Abreu Perdomo - Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitzberri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com


- Ile-apaindegia
- Estetika
- Presoterapia
- Podologoa
- Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
- Dietista-nutrizionista
- Mikropigmentazioa ezpainenan
- Mikroblading bekainetan

"Buruketen beste ikuspuntu bat ezagutzea lagungarria da"

teorikoak ikasi eta ongi ezagutzea onuragarria da, modu horretan ariketa jakin batean aldaketak egin ditzakezulako, gaia ezagutzen duzulako. Memorizatzea baino garrantzitsuagoa da logika ulertzea eta hori ez da batere erraza. Azkenean horrelako akatsak suertatzea oso ohikoa da, baina ikaskideek edo irakasleek beste ikuspegi bat eskaintzen dute eta hori benetan lagungarria izan daiteke.

Zein garrantzi du matematikak eguneroko bizitzan?

Bizitza arruntean, askotan esaten da kontuak egitea garrantzitsua dela, baina nik neronek egunerokoan ez dut konturik egiten. Hala ere, enpresetan, datuen analisia eta informazioaren optimizazioa oso garrantzitsuak dira. Logistikak, datuen analisia eta optimizazioa gerok eta gehiago erabiltzen dira, eta hor matematikaren laguntza beharrezkoa da. Egia da gehienetan lan hauek ezkutuko lanak direla, agian horrelako betebeharrak ez dira hain nabarmenak, baina enpresetan eta beste sektore batzuetan datuak eta optimizazioa beharrezkoak dira. Gainera, eguneroko arloetan, osasunean adibidez, matematikarekin erlazionatutako ikerketak gerok eta ohikoagoak dira.



Eta etorkizunean?

Datuak eta teknologia gerok eta gehiago erabiltzen dira, gaur egungo munduan hori agerikoa da. Orde-nagailuak gerok eta zabalagoak dira eta sare sozialetan, mugikorretan, eta bestelako gailu teknologiko edo hainbat web orrialdetan, datuak etengabe jasotzen dira. Enpresek informazio hori guztia behar dute eta hor matematikaren laguntza ezinbestekoa da. Horren ondorioz, datuak prozesatzea eta optimizatzea garrantzitsua da, eta hori egiteko matematika beharrezkoa da. Informatikaren eta datuen zientzian karrera gehiago daude, eta enpresetan gero eta eskari handiagoak egiten dira.

Zer esango zenioke matematika klaseetan zailtasunak dituen ikasle bati?

Nire ustez, matematikaren zailtasunak izateak frustrazioa sor dezake. Logika eta kontzeptuak ulertzea garrantzitsua da. Oroitzen naiz batxilergoan ikaskideek eta akademiako irakasleek asko lagundu zidatela hainbat gai hobeto ulertzeko. Izan ere, buruketen beste ikuspuntu bat ezagutzea lagungarria da, besteen ideiak eta azalpenak entzutea beharrezkoa dela pentsatzen dut eta ikaskideekin harremanetan egotea ezinbestekoa da. Gainera, behin eta berriro saiatzea onuragarria izan daiteke, modu horretan ariketa matematikoak garatzeko frustrazioa alde batera utzita.

M8

Emakumeen Nazioarteko Eguna



Ez zaitzatela nahasi...

Gezur Matxistekin

"Soldata arrakalarik ez dago"

Nafarroan, gizonezkoen batez

besteko soldata gordina 32.005 eurokoa da;

emakumezkoena, berriz, 26.033 eurokoa.

Iturria: Nafarroako Soldata Egituraren Estatistika. 2022. urtea.

SAGARDOTEGIKO MENUA
Urtarriletik maiatzera
Ostiral gau eta asteburuetan

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA
948 604 571 - ODERITZ

Martitxonea
sagardotegia
Inaxio Begiristain



Aldatz
Nafarroa
948604607





ARRIBEKO ELKARTEA DOINUZ BETETA

Otsaileko bigarren asteburuan bertso-afari zirrargarria ospatu zen Arriben. Bertan, Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariak aritu ziren. Ekitaldia herriko elkartearen izan zen, eta 56 lagun batu ziren. Bertsozaleek giro ederraz gozatzeko aukera izan zuten eta afarian, bi abeslariak beren doinuak partekatu zituzten.

12



"IRABAZI ARTE" TELESAILAREN AURRESTREINALDIA GAUZATU DA

Lekunberriko eta Araizko udaletxeetan "Irabazi Arte" telesailaren 4. denboraldiaren aurrestreinaldia egin zen, UEMAk eta EITBk sinatutako hitzarmenari esker. Akordio honen bidez, UEMAk kide diren 3.000 biztanletik beherako herrietan, *Primeran* plataformako euskarazko edukiak doan eskaini ahal izango dira. Halaber, bi erakundeek adostu dute ekimen berriak garatzen jarraitzea, herritarren artean euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa sustatzeko. Azaroan, Goñazen telesailaren 11. denboraldiko lehen atala 80 udalerritan eskaini zen, eta arrakasta handia izan zuen.



BELAR ETA KIMA BILKETA LEKUNBERRIN

Lekunberri belar eta kima biltzeko sistema abiatu da, herriko ingurumenaren zaintza eta garbitasuna hobetzeko helburuarekin. Sistema honen bidez, herritarrei belarra edukiontzi marroietan uztea eta kimak Etxarriko bidean egokitutako eremura eramatea gogorazi nahi zaie. Horrela, hondakin berdeak behar bezala kudeatzea eta birziklapena sustatu nahi da, natura-ingurunea babestuz. Horretarako, herritarren laguntza funtsezkoa da.



HONDAKINAK BEREIZTEKO GIDA BEHAR DUZU?

Lekunberriko udalak herritarren eskura jarri du hondakinak bereizteko gida berria. Hau ezinbestekoa da birziklapena sustatzeko eta ingurumenaren babesa bermatzeko. Ondorioz, edukiontzi bakoitzaren erabilera argitzeko gida osoa prestatu da, eta herritarrek informazio zehatza jaso ahal izango dute. Udalak deia egin die bizilagunei gida kontsultatzeko eta behar bezala bereizteko ohiturak hartzeko. Gida osoa eskuragarri dago online www.lekunberri.eus webgunean.

13

BETELUKO UDALETXEAN BERRIKUNTZAK EGIN DIRA

Beteluko Udaletxean moldaketa lanak egin dira, eta artxibo zaharra zen gela berritu eta bilera gela txiki bat egin dute. Horrela, espazio erosoagoa sortu da udalaren bilerak eta bestelako ekimenak errazteko. Horrez gain, beste gela bat moldatzen ari dira, erabilera askotarako prestatuko dena, hala nola hitzaldiak, ikuskizun txikiak eta mahai-inguruak egiteko. Gainera, bertako patioa ere txukundu dute, eta Beteluko alkateak lehenengo solairua egokitzea eta txukun uztea.



EUSKAL HERRIKO INAUTERIAK IBARREAN

Larraungo Gabari Gune Irekian "Herri Inauteriak" erakusketa ikusgai izan zen otsailaren 16tik 20ra. Bertan, Euskal Herriko inauterietako pertsonaia ezagunak bildu ziren, ikusleen arreta piztuz. Hainbat bisitarik aitortu zuten bertan aurkitu zituzten pertsonaiek beldur apur bat ere ematen zutela. Erakusketan, Nafarroako inauterien bilduma zabal bat aurkeztu zen: Lantzeko Ziripot, Zaldiko, Zetak taldeak mitologian inspiratutako ikuskizunetan gehitu dituen pertsonaia batzuk ere bertan ziren, hala nola akerra eta sorginak. Halaber, Larraungo inauterietako pertsonaia nagusia, Attezarko, ez zen falta. Aurten, lehen aldiz ospatu dira herri inauteriak, eta ekimenak harrera interesgarria izan du. Hasiara xumea izan bada ere, antolatzaileek adierazi dute hurrengo urteari begira hausnarketa egin nahi dutela, etorkizunean herri inauteri zabalagoa sortzeko helburuarekin.



●● Jon Altuna, Beteluko Araxes Ikas Komunitateko zuzendaria (Ibarra), eta Lurdes Muinoa, irakaslea (Segura)

“Araxes eskolak 50 urte betetzen ditu”

Apirilaren 12an egun osoko festa bat antolatu du Araxes eskolako hezkuntza komunitateak. Iragana, oraina eta etorkizuna batzen dituen festa izanen da eta belaunaldi belaunaldi bizitako bizipenen elkargune eta ospakizun. Festa koloretsu, alai, euskalduna eta gertukoa izatea du helburu.

Gau egun, Araxes Ikas Komunitatean 87 ikasle eta 15 irakasle daude. Eskola txikia izan arren, herritarren kohesiorako eta herri txikien biziraupenerako ezinbesteko elementua da. Bertako familien konpromisoari eta irakasleen lanari esker, Araxes hezkuntzaz haratago doan ikastetxea bihurtu da, non herriko bizitza sozial eta kulturala ere garatzen den. Araxes eskolak Araitz-Betelu eta Larraungo herritarren belaunaldien arteko loturak batu eta bertakoei ikasketa metodologia eguneratu batean

“Lehen, herri bakoitzak bere eskola zuen, baina baliabideak hobetzeko eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko elkartu egin behar izan ziren”

Lurdes Muinoa

parte hartzeko aukera eskaintzen die. Ikasleen gurasoek eta herritarrek eskolarekin duten lotura estuak erakusten du nolakoa izan daitekeen herri txiki bateko hezkuntza: elkarlanari, parte-hartzeari eta herriaren identitateari eusten dion gunea. Izan ere, bertan sortzen diren proiektuak, jarduera kulturalak eta jaiak, herritarren parte dira, hezkuntzaren ingurua ezagutzeko aukera eskainiz.

Araitz, Larraun eta Beteluko eskolak batzeak, garrantzi handia izan zuen

1975ean, eskualdeko hainbat herritan banatuta zeuden eskolak batzea erabaki zen. Hasieran, ikastetxea Beteluko elkartearen kokatu zen, gero Indianoetxera pasa zen, eta azkenean gaur egungo eraikinean finkatu zen. Lurdes Muinoak, eskola sortu zenetik bertan izan den irakasleak, honela



Araxes eskolako sarrera. Argazkiak: Jon Altuna



Araxes eskolako ikasleak

azaldu du hasiera hura: “Lehen, herri bakoitzak bere eskola zuen, baina baliabideak hobetzeko eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko elkartzea erabaki zuten. Aldaketa handia izan zen, herriko bizitzatik bailarako bizitzarako aldaketa eman zelako. 50 urteren ondoren, Araitz-Betelu eta Larraungo bailararentzat aberasga-

“50 urteren ondoren, Araitz-Betelu eta Larraungo hezkuntza komunitatea eta euskara dira gure indarguneak”

Jon Altuna

ria izan zela esan dezakegu. Bailarako hezkuntza komunitateko kide guztiek eskola dutelako elkargune.” Hasieran, ikasle kopurua 200 ingurukoa zen, baina denborarekin herritarren populazioaren beherakadak eragina izan du. Gaur egun, batz bestea, 9 ikasle daude maila bakoitzean, nahiz eta talde txikiagoak

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXI SOROA

609 168 217

Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.

ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI

Telefonoa eta Faxe: 948507343

carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

aseguru gintza XXI

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

► aseguruak@aseguruak.eus
► 943 65 22 20
► Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

ALIPROX

Lekunberri

janaridenda

hamabostaldi eskaintza bereziak

OTXOTORENA okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

ere badauden. Horrek erronkak eta aukera berriak ekarri ditu hezkuntza-metodologian.

Eskola bateratuaren ereduak, ordea, abantaila ugari ekarri dizkio komunitateari. Irakasleen arteko lankidetzak sendotu da, eta baliabide gehiago bideratu ahal izan dira ikasleen beharretara. Era berean, metodologia berritzaileak ezartzeko aukera eman du, talde-lanaren bidez ikaskuntza esanguratsuago bat bultzatuz. Azken urteetan, herrietako familien arteko harremanak ere estutu dira, eskolak herri bakoitzeko bizitzan duen eragina nabarmen handituz. Belaunaldi desberdinetako ikasleen artean ko-hesio handiagoa sortu da, eta komunitate txiki batetik abiatuta, proiektu ameslariak dituen hezkuntza eredu sendo bat garatu da.

Apirilaren 12an, 50. urteurrena ospatuko da

Aurten, Araxes Ikas Komunitateak 50. urteurrena ospatuko du, eta ikasturte osoan zehar garatutako proiektua izango da horretarako ardatza. Gainera, eskolako hiru belaunaldiren esperientziak jasotzeko inkesta bat prestatu dute: aiton-amonek, gurasoek eta gaur egungo haurrek haien esperientzia partekatzeko. Altunak adierazi duenez, "proiektuaren helburua belaunaldien arteko lotura erakustea eta garai bakoitzeko eskola nolakoa zen ezagutzeko da". 50. urteurrenako logoa ere egin dute. Aukera desberdinak planteatu dira eta ikasle, guraso eta irakasleek parte hartutako bozketa prozesu baten bi-



Indianoetxea

"Lehen, irakaslea zen protagonista. Orain, ikasleen parte-hartzea eta emozioak ere kontuan hartzen dira"

Lurdes Muinoa

tartez aukeratua izan da.

Egun berezi bezala, eskolaren 50. urteurrenako festa egingo dute, apirilaren 12an hain zuzen. Jolasak, musika, bazkaria, kalejira eta bestelako ekintzak antolatuko dira, iraganeko eta

oraingo eskolako kide guztiak parte har dezaten.

Ikasturte amaieran proiektuari bukaera emateko amoz, aldizkari bat ekoizteko asmoa dute, 50. urteurrenaren memoria gordetzeko. Aldizkari hau hezkuntza komunitateko kideen artean banatzea da asmoa.

Gurasoak eta herritarrak, komunitatearen parte dira

2016tik aurrera, Ikas Komunitatearen eredu martxan jarri zen, eta horrek gurasoen eta herritarren inplikazioa nabarmen handitu du. Orain, eskolak bultzatutako hainbat batzorde daude, eta ardura desberdinak

bermatzen dituzte, horien artean: bizikidetzak, festa, patioa eta jantokia antolatzeko lanetan dihardute. Azken horri esker, bertako produktuak gehiago erabiltzea eta jantokiko prezioen oreka bilatzea lortu nahi da. Guraso eta herritarrek eskola proiektuetan parte hartzen dute, boluntario gisa ikasleei lagunduz. Horrek herri txiki baten elkarlana eta hezkuntzaren inguruko sentsibilizazioa sendotu du. Eskola ez da ikasleentzat soilik, nahi duena bertaratu daiteke, atea irekita dagoen gunea bilakatu baita.

Apirilak 12an egin nahi den festa horretarako ere, festa batzordea ari da lanean. Guraso, ikasle eta irakasleak ari dira parte hartzen. Guztion laguntza izan ezean ezinezkoa litzateke horrelako ekintzak aurrera eramatea. Honi lotuta, Jon Altunak hau aipatzen du: "50. urteren ondoren Araitz-Betelu eta Larraungo hezkuntza komunitatea eta euskara dira gure indarguneak".

Hezkuntza ereduaren bilakaerak garrantzi handia du

Araxes Ikas Komunitatean azken urteetan izan den aldaketarik esanguratsuenetakoa bat hezkuntza metodoetan gertatu da. Lurdes Muinoak argi du: "Lehen, irakaslea zen protagonista. Orain, ikasleen parte-hartzea eta emozioak ere kontuan hartzen dira".

Jon Altunak aldaketa hau sakondu du: "Lehen, irakasleak hitz egin eta ikasleek entzun besterik ez zuten egiten. Gaur egun, Ikasleen talde-lana sustatu, iritzia baloratu eta haien egoera emozionalari garrantzia ematea ezinbestekoa da".

Orain, prozesua baloratzen da emaitza baino gehiago. Ikasketa esperientzia sakonagoa bilatzen da, eta horretarako, proiektuen bidezko lana indartu da. Izan ere, azken urteotan, hainbat proiektu garatu dira: aurreko ikasturtean denboraren lerroari buruzko proiektua egin zen, eta aurten eskolaren 50. urteurrenaren inguruko lana garatzen ari dira.

Aldaketa hau ez da soilik metodoetan inplikatzeko, baita hezkuntza filosofia orokorrean ere. Ikasleak ez dira ikaskuntza prozesuaren ikusle



Araxes eskolako ikasleak txango batean

"Araxes eskola kalitatezko Euskal Eskola Publikoa izatea da Araitz-Betelu eta Larraungo hezkuntza komunitatearen amets eta erronka nagusia"

Jon Altuna

pasiboak, baizik eta aktore aktiboak, eta horrek eragin zuzena du ikasleen motibazioan eta konpromisoan. Horrez gain, ikasleen autonomia eta erantzukizuna sustatzea bilatzen da, proiektuen bidez ikasleek beren jakintza erakitzen baitute, eta, horrela, adierazpen eta hausnarketa askatasun handiagoa dute.

Ikasgela txikietan ikasle handiak sortu dira

Eskola txiki batek dakartzen erronkei aurre egiteko, ikasleen arteko elkarlana ezinbestekoa bihurtu da. Adin desberdinetako ikasleak elkarrekin aritzen dira, eta horrek ikaskuntza prozesu dinamikoagoa sustatzen du. Jon Altuna zuzendariaren hitzetan, "ikasleek elkarri laguntzen diote, txikiak handiengandik ikasten dute, eta handiek txikiengandik".

Horretaz gain, badira zailtasunak ere. Maila ezberdinetako ikasleek klase

beran ikasteak erronka pedagogikoak sortzen ditu, batez ere egitura egokitzeko garaian. Horregatik, irakasleek malgutasunez lan egin behar dute, haurren erritmo eta beharrei egokitu-tako metodologia bilatuz.

Baina eskola txikiak berezitasun batzuk eskaintzen dituzte, hala nola: ikasleekin harreman hurbilagoa izatea, familia giroa eta bertakoen laguntza atsegina. Horrek, ikaskuntza prozesua aberastu eta pertsonalizatu egiten du. Irakasleek, ikasle bakoitzaren indarguneak eta ahultasunak kontuan hartuta, taldean lan egitearen garrantzia azpimarratzen dute. Horrela, ikasleak giza arloan ere hazten dira, beste pertsona batzuen beharrik eta iritzirik errespetatuz eta elkarri lagunduz.

Etorkizun indartsua espero da

Araxes Ikas Komunitatearen erronkarik handiena ikasle kopuruaren jaitziera da. Herri txikietan jaiotze tasa txikiagoa da, eta horrek hezkuntza plangintza berriak eskatzen ditu. Baina ikas komunitate honek argi du bidea: herritarren parte-hartzea areagotzea, metodologia berritzaileak garatzea eta ikasleen heziketa emozionala eta akademikoa uztartzeko jarraitzea dela. Azken batean, Araxes eskola kalitatezko Euskal Eskola Publikoa izatea da Araitz-Betelu eta Larraungo hezkuntza komunitatearen amets eta erronka nagusia.

CONSTRUCCIONES
ERAKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK

ERAKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com 636 827 846

Santa Ageda eguna

Otsailaren 4ean makilen kolpeak ez ziren falta. Azken boladan eguberria esna dabilela dirudi, eta horrek Larraungo eta Lekunberriko jendearen parte hartzea bermatu zuen. Jaka jantzi, eta bertsolari, txistulari, trikitilari eta akordeoi-lariak lagunduta, herritarrek lau haizetara zabaldu zituzten koplak itsaskorak.



Lekunberri. Argazkia: Aitor Perez



Arruitz. Argazkia: Aitor Perez



Araitz. Argazkia: Teresa Mariñelarena



Betelu. Arg.:Teresa Mariñelarena

Betelun eta Araitzen, ordea, Araxes Ikas Komunitateko Santa Ageda Batzordeak, honako mezu hau idatzi du:

“Santa Ageda bezpera Uztegin

Gabonak pasa berriak eta inauteriak ate joka ditugun honetan, otsailaren 4an, urteroko ohiturari jarraituz Santa Ageda bezpera ospatu dugu. Jende asko hurbildu da zorionez eta denak irripartsu eta pozik ibili gara! Urteak dira, Beteluko Eskola, Guraso elkartea, Musika eskola, Euskara batzordea eta Bertsolaria bildu eta adostu ondoren, urtero herri desberdinean ospatzen dugula. Aurten Uztegin txanda izan da, aspaldiko partez. Egia esan, hainbeste lagun, batez ere haurrak, bertan kantuan eta musikaz inguratuta ikustea zoragarria izan da. Eskolan 50. urteurrena ospatzen ari garen honetan, ikasle batzuek “koplak” asmatu eta txukun-txukun kantatu dituzte. Aurten, beraz hiru kantu aukeratu ditugu: “Zorion etxe hontako denoi”, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Oles, oles” eta ikasleen koplak. Bertsolariak, beti bezala momentuan bertan asmatutako bertsoak eskaini dizkigu dena borobilduz. Hasteko, goizean ikasle sortzaile taldearekin Beteluko Amavir-era hurbildu gara eta kantua aritu gatzazkie. Harrera ezinhobea egin digute! Arratsaldean berriz, Uztegin plazaik abiatu eta herrian zehar laupabost tokitan gelditu eta kantuan aritu ondoren, plazara itzuli gara. Ohiko kantuen ondoren, ikasleek beraiek sortutako koplak kantatu dituzte eta atzetik, gure Oskar Estanga bertsolaria (beste gauza askoren artean), txukun eta dotore aritu da dena borobilduz. Kanturako laguntzaile ezin hobea izan dugu, Beñat Pellejero akordeoilaria eta batetik besterako bidean, zonaldeko txistulariak, trikitilariak eta panderojoleak, txandaka aritu dira. Zorionak eta mila esker guztiei! Festari amaiera emateko, herriko etxean denon artean eramandako jaki goxoak dastatu ditugu. Gora elkartasuna! Gora musika eta alaitasuna!”

Santa Ageda batzordea Araxes Ikas Komunitatea

Maskara tailerra, sormenaren giltzarri

Otsailaren 15ean, Lekunberriko Udaletxeko txiki parkean, LH1. eta LH6. mailako haurrek maskara tailerra egin zuten arratsalde atsegin bat igaroz. Honi esker, bertaratu ziren haurrek maskara jator eta dibertigarriak sortu zituzten. Egitasmo hau PAUMAK antolatutako zuen eta irudimena lantzeko aukera paregabea izan zen, gainera, egindako lanaren emaitzak ederrak izan ziren.



PAUMAK antolatutako maskara tailerren une bat.
Argazkia: Ainhoa Beraza.

‘Egin nirekin ere euskaraz!’ kanpainari ekin dio UEMAK



UEMAK antolatutako bigarren edizio honetan, beste herrialdeetatik Euskal Herrira etorri eta ostalaritzan zein merkataritzan lanean ari diren euskaldunen egoera ikustaraztea eta aurreiritziak apurtzea da helburu. Euskal Herrian, jatorri desberdinetako euskaldun ugari daude, horien artean: Amin, Ansou, Narcisa, Rizwan, Keyla, Marcos, Maurizio, Guina, Jennifer, Daniel, Michele eta Valeria, adibidez. Aljerian, Senegalen, Errumanian, Pakistanen, Brasilen, Bolivian, Sardinian, Uruguain, Mexikon eta Nikaraguan jaioak dira. Etxean arabiera, wolofera, errumaniera, urdua, portugesa, sardiniera edo gaztelera ikasi dute, baina dagoeneko, euskararekin zuten harremana landu eta barneratu dute. Kanpainaren bidez, UEMAK nabarmendu nahi du euskara hizkuntza anitz eta aberatsa dela, eta azalaren kolorea edo jatorria gorabehera, hizkuntza komunitatearen parte direla ostalari eta merkataririk. Kanpainaren bideoak, kartelak eta diptikoak ikusi nahi badituzu, sar zaitez <https://labur.eus/u04Mr> web orrialdean.

Ixkier Komunitate Energetikoak bultzatutako autokontsumoko instalazio kolektiboak

Ixkier Komunitate Energetikoa, Larraun ibarrean energia kontsumoari buruzko lanketa egiten ari da. Komunitatea horretarako jaio baitzen, kontsumo arduratsua, kontzientea, berriztagarria eta hurbilekoa egiteko egitasmoak bultzatzeko. Ondorioz, Nafar Gobernuak Komunitate Energetikoentzako atera berri dituen diru-laguntzetan, instalazio fotoboltaiko kolektibo bat egiteko aukera aurreikusi du komunitateak. Dirudienez, horrelako proiektu bat urriaren 15a baino lehen gauzatuz gero, inbertsioaren %60a diruz lagunduko da. Aurreikusten den instalazioa 100Kwnkoa izanen da eta Lekunberriko kiroldegiko teilatuan eraikiko da. Parte hartzeko, norberaren kontsumo puntua instalaziotik gehienez 2kmtara egon behar du, beraz Lekunberri, Iribas, Alli, Mugiro eta Etxarriko herritarrek sartuko lirake. Printzipioz proiektu hau 40 kontsumitzaileentzat irekiko da, hau da, bakoitzak 2.5kw izango lituzke. Hala ere, behin interesdun guztiak bilduta, banan banako beharrak aztertuz, potentzia banaketa kontsumitzaile bakoitzarentzako egokitzen saiatuko da. Proiektuan parte hartzeko interesa izan dezaketen kontsumitzaileentzako bilera informatiboa, Lekunberriko batzar aretoan gauzatuko da, martxoaren 13an, arratsaldeko 18:00etan. Edozein zalantza argitzeko idatzi ebkomunitatea@gmail.com helbide elektronikora.



Mozorroz eta umore onez jantzita

Aurtengo inauteriak berandu iritsi dira, baina Uitzikoen ostean, Betelu eta Lekunberrik gogotsu jarraitu diote tradizioari. Zenbait herritarrek karrozak eta lehiaketak ere antolatu dituzte, ohiko pertsonaiei su emateaz gain. Kontuak kontu, ohitura zaharrak berritzen darraigu gure herrietan ere, eta horretarako, umore ona bide-lagun dela argi ikusi dugu, beste behin.

LEKUNBERRIKO INAUTERIAK



Ibarberri eskolako ikasleak. Argazkia: Nerea Labayen

BETELUKO INAUTERIAK



Argazkia: Teresa Mariñelarena



Argazkia: Ander Elizalde



MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

Unibertsitatearekin egin dugu topo

BERRIZ ERE. Eta hizkuntzarekiko errespetu faltarekin! Euskararekiko, hori bai. Diot, zalantzarik balego oraindik.

Ezdakitzenbat plaza eskaini zituzten magisteritzako ikasleek Entzumena eta Hizkuntza aipamena egin zezaten. Jo, ze ongi, e? Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz egin dezakegun beste aipamen bat!

Lehenbiziko arazoa, zutabe honetan duela hilabete batzuk ere mahaigaineratu nuena: aipamena osorik euskaraz ikasteko irakasle falta.

Eta orain, horri, hori gutxi balitz, honako esperientzia gehitu beharko genioke: praktikak euskaraz egiteko ezintasuna. Antza, ez dago euskarazko ikasle guztienezako plazarik. Iruñean ez, behintzat. Praktiken esleipena abizenaren letragatik egiten da orain eta lagun batek deia jaso zuen: "Bi aukera dituzu: Iruñeritik kanpo egin (gure zonaldea proposatu zioten! Kasualitatea) edo Iruñerrian A ereduko eskola batean gauzatu".

Kobratzen ez diren praktiketara joateko orain kotxea behar da praktikak euskaraz egin nahi izatekotan.

Agian bueltatxo bat eman beharko dio unibertsitateak eskaintzen duenari. Eskaria ikasleen partetik badago, bai, baina ba al dago eskaintza nahikorik D ereduko eskoletatik? Eta ez badago, ez al dago modurik eskolei gutxieneko praktika-ikasle batzuk hartzea "be-hartzeko" eskari horri merezi-tako erantzuna emateko?



“Entrenamenduak oso garrantzitsuak dira, baina atsedena ezinbestekoa da errendimendua hobetzeko”

Aimar Azpiroz, Arruizko mendi lasterkaria, 2018an hasi zen mendiko lasterketetan parte hartzen, eta ordutik ez du atzera egin. Bere entrenamendu gogorrei eta lasterketa askotan lortutako emaitza onenei esker, aurrera doa lehiaketa gogorretan parte hartzen, eta horrek bultzatu egin du etengabe hobetu eta prestatzeko.

Nolatan hasi zinen mendiko lasterketetan parte hartzen?

Betidanik mendian ibili izan naiz, baina mendiko lasterketak 2018an ezagutu nituen. Ikastolako soinketako klaseetan korrika egiten hasi ginen eta berehala konturatu nintzen hori gustuko nuela. Irakasleak komentatu zigun ikastola ondoko mendietan lasterketa bat egiten zela eta lagun

batzuekin batera bertan parte hartzera animatu nintzen. Lasterketa hori izugarri gustatu zitzaidan eta hortik aurrera hasi nintzen pixkanaka mendian korrika egiten. Handik aurrera lasterketa gehiagotan parte hartzen hasi nintzen, geroz eta emaitza hobetoak lortuz eta horrek bultzatu ninduen lehiaketak geroz eta hobeto prestatzera.

Nolakoa da zure entrenamendu errutina, eta nola prestatzen zara lehiaketetarako?

Normalean astero 10 entrenamendu egiten ditut, 6 egunetan banatuta, bizpahiru egunetan goizez eta arratsaldean entrenatzen dut. Entrenamendu motak lehiaketaren arabera aldatzen joaten dira. Egin behar dituzdan lasterketak ahalik eta hobekien aztertzea gustatzen zait: distantzia, desnibela, zailtasuna, aurreko edizioetako denborak, ibilbidearen bideoak, argazkiak, etab. ikusiz, horren arabera entrenamendu mota egokienak prestatzen ditut.

Nola kudeatzen dituzu elikadura eta hidratazioa entrenamendu eta lehiaketa garaian?

Eguneroko entrenamenduak egin ahal izateko elikadura egokia izatea

“Lasterketa bat ongi prestatzen baduzu zaila da oso gogorra iruditzea”

“Entrenamenduak oso garrantzitsuak dira, baina atsedena ezinbestekoa da errendimendua hobetzeko”

oso garrantzitsua da, elikadura egokirik gabe zaila da entrenamenduak aurrera ateratzea eta errendimendua hobetzea. Egun bakoitzean daukadan entrenamenduaren arabera erabakitzen dut zer jan; entrenamendua gogorra edo luzea bada karbohidrato altuak dituzten elikagaiak garrantzia ematen diet, entrenamendu lasaigoak diren egunetan aldiz, koipe eta proteinei lehentasuna ematen diet. Horrez gain, lehiaketan ere ongi hidratatzea eta elikatzea garrantzitsua da, horretarako alde aurretik lasterketan jan eta edan behar dena argi izan behar da, aurretik entrenamenduetan gauza berak jan eta edateko.

Atsedena hartzea garrantzitsua dela uste duzu? Eta lasterketa gogor baten ondoren?

Bai, hala da. Entrenamenduak oso garrantzitsuak dira, baina atsedena ezinbestekoa da errendimendua hobetzeko. Atsedena egokirik gabe gorputzak ez dauka hurrengo entrenamendurako erreku-peratze denborarik eta horrek lesio arriskua handitzen du. Lasterketa gogor baten ondoren egun batzuk behar dira ongi erreku-peratu ahal izateko, egun horietan korrika egin beharrean bizikletan ibiltzea gustatzen zait, muskuluetan inpaktu gutxiago duelako. Denboraldia amaitzean atsedena astero bat hartzea gustatzen zait, korrika egiteaz gain beste zaletasun batzuk ere baitituzt.

Zein izan da parte hartu duzun lasterketarik gogorrena?

Lasterketa bat ongi prestatzen baduzu zaila da oso gogorra iruditzea, baina bai, “gorriz” markatutako lasterketa bat gogoan dut. 2023ko udan Espainiako selekzioarekin Italiako munduko txapelketara joan nintzen, ez da egin dudana lasterketarik luzeena izan, baino egun horretako urduritasunak eta eguraldiak eraginda, lasterketa osoan zehar muskularki arazoak izan nituen eta oso gogorra iruditu zitzaidan.

Gogoan duzu inspiratzen zaituen lasterkari erreferenterik?

Bai, badituzte korrikalari erreferente batzuk. Handiena Kilian Jornet da, ikaragarria da duen gaitasun fisikoa, distantzia mota guztietako lasterketa



Aimar eta bere lehengusina Guratz Azpirozek lehengo saria lortu zuteneko une bat.



Espainiako selekzioarekin Italiako Munduko txapelketan.


“Korrika egiten hasten den jendearengan ikusten dudana akatsik handiena, lasterketa luzeegiak aukeratzen dituztela da”

“Aurtengo helburua Espainiako txapelketarako sailkatzea da, baino epe luzeagoak beste helburu batzuk ere badituzte”

garrantzitsuenak irabazi ditu eta horrez gain lehiaketetatik kanpo egiten dituen erronkak pertsona gutxi egin dezakete.

Zer aholku emango zenioke mendiko lasterketetan hasi nahi duen norbaiti?

Korrika egiten hasten den jendearengan ikusten dudana akatsik handiena, lasterketa luzeegiak aukeratzen dituztela da. Nik esango nioke pixkanaka hasteko, hasieran distantzia txikiagoak egitera ohitu behar da eta pixkanaka lasterketa luzeagoak egiten joan daiteke, baino hau prozesu luze bat



Pirinioetan irabazitako lasterketa bat

da, eta garrantzitsua kirol honetaz disfrutatzea dela.

Eta baduzu etorkizunerako helbururik?

Bai, beti egoten dira helburuak eta horrek laguntzen dizu egunero entrenatzen eta hobetzen saiatzen. Aurtengo helburua Espainiako Txapelketarako sailkatzea da, baino epe luzeagoak beste helburu batzuk ere badituzte. Egunen batean Italian egiten den “Trofeo Kima” izeneko lasterketa bat egitea gustatuko litzaidake, bi urtean behin egiten da. 52km eta 4000 metro baino gehiagoko desnibel positiboa du, baina berezi egiten duena bere zailtasun tekniko da, lasterketa hau egiteko inguru arriskutsuetan ibiltzeko trebetasun handia izan behar da. Kilian Jornetek dauka ibilbide horren errekorra, 6h09 minututan.



Aimar Azpiroz Espainiako txapeldun izan zenean. Argazkiak: Aimar Azpiroz



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara

XXXV. Lekunberriko krosa

Martxoaren 16an, Lekunberriko Krosaren XXXV. edizioa ospatuko da. Helduen lasterketaren aurretik, haurren txanda izango da eta kadete mailara arteko gazte guztiek parte hartzeko aukera izanen dute. Bertan, ibilbide laburra (4,4 kilometro) edo ibilbide luze (8,8 kilometro) egiteko aukera izanen da. Horretaz gain, ez ahaztu erronka hirukoitza martxan dela eta Beteluko, Lekunberriko eta Leitzako krosetan parte hartzen duten korrikalariek sari ezberdinen zozketan sartuko direla. Azken bi urteetan bezala, Lekunberriko Krosak Kaskamotz ekimenarekin bat egingen du eta lasterketaren bidez lortutako irabaziak *Cris Contra el Cáncer* fundazioaren esku utziko da. Fundazio horrek Madrilgo *Hospital Universitario de La Paz*-eko "Haurren Minbiziaren Terapiak Aurreratzeko Unitatea" babesten du, eta bertan lanean ari dira haur-minbizia aztertu eta gaixotasuna gainditzeko.

- ▶ Parte hartu ezin dutenek ere haien ekarpena egin dezakete dortsal solidarioaren bidez, nahi duten dohaintza eginez edo zuzenean www.kaskamotz.org webgunean lagunduz.
- ▶ Lehiaketan izena emateko epea martxoaren 15eko 12:00ak arte luzatuko da, eta izen-ematea www.rockthesport.com webgunean egin daiteke.

Ikusi MAKUSI, zer ikusi?... marrazki bizidunak, telesailak, filmak eta beste hainbat eduki berri euskaraz ikusgai!



Haur eta gazteen aisialdirako makina bat baliabide dago eskura: jostailuak, komikiak, liburuak, app-ak, filmak... Nork ez du denbora librearen zati handi bat telebistaren, tabletaren edo ordenagailuaren aurrean pasatzen? Batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago, bai, baina esan daiteke ia denon aukera bat dela. Bada, aukera horren baitan ere badago marrazkiak eta filmak euskaraz ikustea, alaba-se-meendako mesedegarri. Hizkuntzak ikasteko prozesua ez da ikastetxera mugatzen, etengabea baita. Hortaz, haur eta gazteak gailu horien aurrean daudenean ere, hizkuntza bereganatzen, aberasten eta finkatzen ari dira. Neurri batean, gurasoen esku dago hizkuntza hori zein den erabakitzea. Une honetan gaztelaniatik eta inglesetik dituzten erreferente gehienak, ez legoke gaizki euskarazko erreferenteak ere izan ditzaten zaintzea. Gaurkoan haur eta gaztetxoendako lehen plataforma digitala aurkezten dizuegu:

<http://www.makusi.eus/>

Entretinemendurako euskarazko edukiak eskaintzen ditu: marrazki bi-

zidunak eta telesailak, 100 izenburu baino gehiago, 5800 atal, 120 pelikula... 1700 orduko gora ikusgai, guztia doan. Edukiak adinaren arabera pertsonalizatuta eskainiko ditu, eta bakoitzak sustatzen dituen balioen deskribapen fitxa ere erakutsiko du. Edukiak ikusteko nahikoa da erregistratzea. Behin egina duzularik, gus-tuko atalera joan, aukeratu marrazki biziduna, pelikula dena delakoa eta sakatu. Ondoren haurran adinaz gal-detuko du: 0-4 urte, 5-7 urte edo 8tik gorakoa. Horietako bat hautatuz gero, adin horri dagozkion atalak ikusiko ditu neska-mutikoak, eta ez beste adinetakoei eskainitakoak. Horrekin gune segurua sortu dute MAKUSIn, gurasoen lasaitasunerako. Hizkuntza gaitasunak ere badu erabilerarekin hein bateko erlazioa. Haurrak euskaraz ongi moldatzea berme hobea da gerora euskaraz egin dezaten. Euskaldun ahalik eta osoenak eta erosoan izan daitezten saia gaitetzke, euskarari sarbide ahalik eta handiena ematen era guztietako jardueretan, eskolaz kanpoko jardueretan, ahoz nahiz idatziz...

Baikor edo ezkor

Azken aldi inguruan asko sortu den galdera da hau: Gaur egungo egoera orokorraren aurrean zer zaude, baikor edo ezkor? Esan nahi da munduaren egoera, gizarteari dagokionez, etorkizuna, teknologia berriak...

Ohartu naiz inguruko joera oso zabaldua dela ezkortasuna, eta ez zait harritzen. Notiziak ikusita, hilketak, gerrak, ekonomia zailtasunak... Herrigintza baloreen galera nabarmena da, ekintza bolondresak alde batera utzi eta diruaren trukeko lana, edo parranda direla dirudi ekintza nagusiak, antidepresiboak, pornografia... Luze jarraitu ahaliko genuke kasuak jartzen, egia da testuinguru batzuetan egoera oso zaila dela, inoiz baino zailagoa.

Ni berriz ohartu naiz nahiko baikor sentitzen munduarekiko, mugitzen naizen eta sortzen ari naizen inguruak horretan laguntzen didala uste dut. Gero eta jende gehiago nabaritzen dut bere burua eta inguruko zaintzeko gogotsu, elikadura, kontsumoak... Barne eta kanpo lana egiteko gogotsu ere, ohitura osasuntsuak garatzeko... Galdetzen diot nire buruari eta ongizate hau munduko beste batzuen kontura egiten dugun, noski bai, eta horretan ere arreta jarri nahi nuke, baina, bidean goazela dirudi.

Baikor egoteak ez du esan nahi niretzat dena ongi dagoenik, ezta gutxiago ere, ba da aurrera jarraitzeko poz bat bezala, bizitzak zentzua duenaren sentipena, misterio baten barruan gaudela baina sakonean merezi duela, bere poz eta pena guztiekin... tristuratan ere baikor egon ahal dela, minetan... Bizitzeko ditudan aukera guztiekin, baikor ez egotea ez dela justua iruditzen zait, mugak izan arren, inoiz baino aukeratzeko gaitasun gehiago izateak, aurrera goazenaren sentsazioa ematen dit. Gizakiaren ontasunean fedea.

Ezkortasunak duguna ez gozatzea ekar dezake, ez baloratzea, bizitza ez bizitzea. Noski, bakoitzak ditu bere arazoak eta egoera gogorren aurrean, oso zaila da baikor izatea, hor ez dut zalantzarik. Ez nuke inozoa izan nahi, denetarik topatu izan dut eta topatuko dut, baina bai sentitu sako-nean badagoela zerbait oso polita dena. Ea nora goazen ba!



LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxo ipini nahi dugu, tokiko merkataritzak gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta irtenbide integrala eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.





Ongizate emozionalerako kirol errezeta ere bai



Une honetan, 50 pertsona inguruk jasotzen dute kirol-errezeta ospetsua, hainbat arrazoiengatik; eta oraingo honetan artikulu hau idatzi nahi nuen, neurri fantastiko honek dituen abantaila zuzen eta zeharkako guztiei buruz hausnartzeko. Alde fisikoan nik baino askoz jende gehiagok kontrolatzen duenez, nirean jarriko dut arreta, alderdi emozionalean, alegia.

Hasteko, alderdirik aspergarrietik hasi eta paretik kenduko dut kirola egiteko orduan bereizten diren hormonak komentatzen, eta zergatik den hain onuragarria hormonak bereiztea:

- ▶ **Endorfina:** zoriontasunaren hormona bezala ezagutzen da, **euforia eta poztasun sententzia** sortzen baitu. Erantzun hormonal horrek, aldarte altua emateaz gain, minaren pertzepzioa murrizten du eta estresa arintzen du.
- ▶ **Dopamina:** motibazioarekin eta sariarekin zuzenean lotuta dago. Ariketa fisikoa egiten dugunean eta dopamina askatzen dugunean, **aurrera egitera, jomugak ezartzera eta lorpen-sententzia** esperimintatzera bultzatzen gaitu.

▶ **Serotonina:** hormona honek ezinbesteko eginkizuna du gogo-aldarte, loa eta gosea arautzeko. Kirola modu erregularran egitean, serotoninaren ekoizpena estimulatu du, eta horrek **oreka emozionala** mantentzen eta depresioa eta antsietatea prebenitzen edo arintzen laguntzen du. Horrek eragin positiboa du eguneroko estresari eta erronkei modu eraginkorragoan aurre egiteko dugun gaitasunean.

Guzti hau gutxi iruditu bazaizue, onura gehiagoren bila goaz:

Kirolak beste pertsona batzuekin elkarreragiteko aukera ematen digu, taldean praktikatzen dugulako, talde-jardueretan aritzen garelako edo gimnasioan beste pertsona batzuekin topo egiten duzulako, eta horrek



gure gizarte-loturak indartzen ditu eta bakardadearen sententzia murrizten du.

Gure buruari proposatzen dizkiongun erronkak eta jomugak betetzen ditugulako sententziak, zalantzarik gabe, geure buruarekiko jarrera positiboa izaten ere laguntzen du, eta botere-sententzia hori bizitzan aurre ditugun beste erronka batzuekiko zabaltzen. Horrela, autoestimua eta konfiantza indartzeaz hitz egin genezake.

Ariketa zure muskuluak indartze-tik haratago doala esan genezake: depresioa, antsietatea, loaren nahasmenduak eta estresa bezalako baldintzei aurre hartzeko eta aurre egiteko oso baliabide baliotsua da.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK

ARTZAI GAZTAK

Gratia Martineke GARTIA Nafarroa
Itak. 649 677 051 + Iruñea. 649 511 051
Martineke eta Iñaki @malloak.com

IDIAZABAL

LEKUNBERRI TABERNA

948 507 628
lekunberribatena@gmail.com
Arriola, 14 50p
31770 Lekunberri
@Lekunberri_Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARITZ
LARRUK
JARMINTZA ETA KONPONITZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldea 19,
Lekunberri

MARTIÑO TXIKI
PERUJIO IKADA

www.martilobiki.com
679 938 016

● ● Mikel Soroa Onsalo (Lekunberri)

“Postaria izateaz gain, pilotan aritu nintzen profesional mailan”

Mikel Soroa Onsalo 1988 urtean hasi zen postari lanetan, eta orduz geroztik 29 urte baino gehiago eman ditu gutunak etengabe banatzen. Soroak adierazi duenez, aita eta aitonaaren arrastoa jarraituz postari izateak betidanik izan du bere begietan xarma berezia, eta bertako jendearekin harremanetan egotea ere lan haren garrantzizko atal izan da.



Mikel Soroa Lekunberriko Correos bulegoan

“Nire aitona postaria zen eta geroago nire aitak hartu zuen postu hura”

Nolakoa zen laneko egun arrunt bat?

Goizean lehenengo orduetan gutunen banaketa egiten nuen eta gero bulegora joaten nintzen bertako betebeharrak egitera. Ni hasi nintzenean buelgoa ez zen oso handia eta gutunen banaketa atalean lan gehiago egin behar zen.

Egia esan, oso polita zen. Niri asko gustatzen zitzaidan jendearekin harremanetan egotea eta hura ez zen lan bakartia. Gainera, bertako jende euskaldunarekin giro ederra osatzen zen. Oso gustura sentitu naiz urte hauetan guztietan, gustuko lantokian.

Zerk bultzatu zintuen postari izate- ra?

Nire aitona postaria zen eta geroago nire aitak hartu zuen postu hura, auroa erosi eta Leitzaera ere joaten zen

gutunak banatzera. Beraz, etxean betidanik ikusi dut lan hau eta txikitatik gustatu zait. Gainera, postaria izateaz gain, pilotan aritu nintzen profesional mailan. Baina noski, pilota munduaren iragana eta oraina oso desberdinak dira. 19 urterekin egon nintzen profesioaletan eta garai hartan ez ziren kontratuak orain bezain azkar amaitzen. Gazte-gaztetatik gustatu zait pilota mundua eta zortea izan dudala pentsatzen dut nire bizitzako bi alderdi garrantzitsu hauek landu eta konbinatzeko aukera izan nuelako.

Eta nola aldatu da postari lana hasi zinenetik gaur arte?

Hasiera hartan, iragarki guztiak eskuz banantzen ziren, etxez etxe. Orain ia dena internet bidez banantzen da, beraz, horrelako bidalketak asko jaitsi dira. Gainera, oroitzen naiz bankuek ere edozein mugimendu egiterakoan jakinarazpen bat bidaltzen zutela eta gaur egun mugikorrera bidaltzen dute dena. Baina horretaz gain, paketeria lana asko igo da, jendeak internetetik gehiago erosten du, asko hurbiltzen dira bulegora paketeak jasotzera, itzultzera, etab. Ni bertan hasi nintzen

“Pilota munduaren iragana eta oraina oso desberdinak dira”

“Asko gustatzen zitzaidan jendearekin harremanetan egotea, eta hura ez zen lan bakartia”

tzenean, oso gauza gutxi egiten ziren eta gaur egun posta bulegoa edozein dendaren antzerakoa da: seguru telefonikoak egin daitezke, ordainketak, etab. Laburbilduz, bulegoko lana asko handitu da azken urteotan, baina gutunezko posta bidalketa ia dena desagertu da, lan egiteko modua asko aldatu da.

Zein izan da lanean bizitako esperientzia gogoangarriena?

Oroitzen naiz plaza atera nuenean Madrilera (Alcalá de Henares) joan nintzela bertan lan egitera. Autobusez hurbildu eta iritsi nintzenean ez nuen Correoseko bulegoa topatzen, orduan ez zegoen mugikorrak eta ez nekien

nola aurkitu. Beraz, laneko arropa jantzita nuela, bertako jendeari galdezka aritu nintzen. Hura une bitxi eta gogoangarria izan zen.

Faltan botatzen duzu postari izate- tea?

Egia esan, gehiegi ez. Duela gutxi erretiratu nintzen, 2024 urteko abenduaren 30ean izan zen nire azken eguna. Gainera, betiko jendearekin harremanetan jarraitzen dut: kafea hartzen, mendira joaten, kirola egiten, etab. Beraz, lanik gabe nahiko ongi sentitzen naiz.

Eta etorkizuna...

Bueno, denbora gehiago izanen dut mendira joateko, lagunekin egoteko eta ateratzen diren kultura eta kirol ekintzetan izena emateko. Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiot herriko eta ibarreko jendeari, oso gustura egon naiz eta sentitzen dut norbaiti huts egin badiot. Ez daukat beste ezer esateko, eskerrak asko.

MAITE HARATEGIA
BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.
Antigua kalea 7
31890 BETELU
948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

German Lasarte
ARRABONDO HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arabe-Atalu

urrutia enea
etxeke hestekiak
LEKUNBERRI

KOTXERA
Taberna Txiki Jantokia Barra

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Ustegi (Araitza)

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi3@gmail.com
Atallu - Araitza
Lontxo Otamendi Artola



Mikel Soroa pilotari profesionala zen garaieko argazki bat

EUSKARALDIA 2025

Maiatzaren 15etik 25era burutuko da. Euskaraldia ulertu, ikusi eta bizitzeko modua aldatzeko erronkarekin dator laugarren edizioa.

Elkar mugituz egingo dugu lelopean, aktibazioan, mugimenduan, emozioetan eta bata bestearengandugun eraginean jarri dute arreta antolatzaileek. Entitateek (elkartek, erakundeak, taldeak, fundazioak, saltokiak, ostatuak...) ARIGUNE gisa eman dezakete izena, eta herritarrek AHOBIZI edo BELARRIPREST rola hartuko dute. Dagoeneko zabalik da izen ematea <http://www.euskaraldia.eus/> webgunean. Bertan topatuko duzu aurtengo edizioari buruzko gainerako informazio guztia, baita Euskaraldiaren materiala ere eskuratzeko aukera izanen duzu.

Aurtengo edizioan Euskaraldia Hika ekimena burutuko da, eta herritarrek horretan parte hartzeko aukera izanen dute. Izena ematerakoan zehaztu beharko dute Hikaren aldeko keinua egin nahi duten. Parte hartzeko, ez dago Hika jakin beharrik, hitanoa ikasi edo entzun nahi duenak ere parte hartu dezake. Ahobizi edo Belarriprestaren txapan H-a jarrita hau adieraziko dugu: *"Nahi baduzu, nirekin hika egin dezakezu"*

Araitz eta Larraungo batzordeak dagoeneko hasiak dira gure eskualdean Euskaraldia antolatzeko urratsak ematen. Hona hemen hurrengo hitzorduak:

- ▶ Araizko batzordea: Apirilak 2, asteazkena, arratsaldeko 18:30ean, Araizko udaletxean.
- ▶ Larraungo batzordea: apirilak 09, asteazkena, arratsaldeko 18:00etan, Larraungo udaletxean

AGENDA

MARTXOA

5 - 11:00-13:00 Sormen tailerrak: buruhandiak eta panpin ilertsuak egiteko tailerra. Araizko Udaletxean.

8 - Emakume Langileen Nazioarteko Eguna. - Gorritiko inauteriak. - Baraibarko inauteriak.

14 - 18:00 Printzan, Jakoba Errekondo: Ilargiaren eta landareen agendaren aurkezpena. Jarraian kontsultategia.

15 - Azpirozko inauteriak. - Gaintzako inauteriak. - 17:00 "Euskaraz Bai" haurrentzako tailerrak (euskaraz), Baraibarren. Izena ematea: larbeleareuskaraz@iparmank.eus.

16 - Haitzuloen eguna. Mendukilo XX urteurrena, Astitzen. - XXXV Lekunberriko Krosa. Txikito de Arruitz Memoriala, Kaskamotz elkartearekin solidarioa. 10:45 (haurrak), 12:00 (orokorra).

20 - Udaberria.

25 - 16:00-20:00 Musika eskolako entzunaldiak. Gabari Gune Irekian.

28 - 19:00 Bakarrizketa Printzan: Manex Astigarraga.

29 - 20:00 "Bizitza musikal bat da", Aralar Musika Eskolaren Abesbatza Kontzertua. Plazaola Kiroldegian.

30 - Ttuturreren mendi irteera. Etapa 3 - Bortziriako Itzulia: Sunbilla - Aizkolegi - Etxebertzeko Borda - Eskisaroi malkorra.

APIRILA

2 - 18:30 Euskaraldia Batzordearen bilerara, Araizko Udaletxean.

3 - 19:00 "Frankenstein agurgarria" disko-liburuaren aurkezpen musikatua eta solasaldia. Gabari Gune Irekian.

9 - 18:00 Euskaraldia Batzordearen bilerara, Larraungo Udaletxean.

MARTXOAK 8 EGITARAUA

3 - 17:00 Ipuin kontalaria: "Iratiren esamesak" (4-11 urte). Lekunberriko Batzar Aretoan.

6 - 11:00 Jokuak: Ginkana (10-12 urte). Lekunberriko Kiroldegian. 18:00 Dokumentala: "Generación Porno". Lekunberriko Txikirpak gelan.

8 - 12:30 Manifestazioa Larraungo Udaletxetik, Lekunberriko Udaletxera.

11 - 20:00 Gastronomia: pintxo dastaketa, Kattagorri Elkartean.

14 - 19:00 Antzerkia: "Terapia II". Gabari Gune Irekian.

22 - 18:30 Dokumentala: "2zi bularretik ehundutako aitortzak". Gabari Gune Irekian.

"Hementxe duzue 2025eko Emakume Langileen Nazioarteko Egunerako Larraungo Ibarreko Berdintasun Mahaia prestatu duen egitaraua. Lekunberriko Udaleko eta Larraungo Udaleko sare sozialetan ekintza bakoitzeko kartel bat igoko da, eta bertan jarduera bakoitzaren xehetasun guztiak aurkituko dituzue (egitarau orokorrean agertzen ez direnak). Aurtun, berrikuntzak eta proposamen ezberdinak ekartzen saiatu gara, hala nola pornografiak hitz egingo duen dokumentala eta etxeko txikientzako ginkana. Era berean, ongi funtzionatzen duten jarduerak jarraituko dugu, esaterako, antzerkia. Gainera, aurtun Maiatzeko Kultura Hilabetean ere ekintza batzuk antolatuko ditugu, beraz, adi egon! Jardueretan parte hartzera animatzen zaituztegu, baita Berdintasun Mahaian parte hartzera ere. GORA BORROKA FEMINISTA!"

Larraungo Ibarreko Berdintasun Mahaia

Zuri-beltza nahastean sortutako kolore grisa

Hilabete igaro da Mailopeko egoera ilunari buruzko argitalpena egin genuenetik, eta horren ostean bazkide egin diren herritarrei gure esker ona adierazi nahi diegu, gaur egun guztira 21 bazkide berri batu baitira. Hala ere, Mailopek aurrera egiteko laguntza gehiago behar du. Badakizu aldizkariak jasaten dituen zailtasun ekonomikoak handiak dira, eta horrek, eragin latza du bere egonkortasun eta etorkizunean. Horregatik, beste urrats batzuk egiteko eta proiektu hau bideragarri izateko zure laguntza ezinbestekoa da. Beraz, aldizkaria maite baduzu eta bazkide egiteko dudetan bazaude, animatu! Ea ba, guztion artean zehaztutako erronka lortzen dugun, etorkizun oparo, argitsu eta koloretsu bat lortzeko!

Mailopeko Zuzendaritza Taldea

2025eko Maiatzaren 15etik 25era

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugu

EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus

TAUPA | Gobierno de Navarra | Gobierno Vasco

erriGora

BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardo, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

DENONA DA ONURA

Martxoak 10-26
errigora.eus

